Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

# Sasieta Mankomunitatea

# Mancomunidad Sasieta

1998

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

## AURKIBIDEA/ÍNDICE

SARRERA................................................................................................................ 3

ONDORIOAK ........................................................................................................... 4

I.- Legezkotasuna betetzea.....................................................................................4
II.- Kontularitzako alderdiak. ...................................................................................5
III.- Finantzen analisia...............................................................................................6
IV.- Kudeaketari buruzko beste hainbat alderdi eta gomendio. .................................8

INTRODUCCIÓN.......................................................................................................10

CONCLUSIONES .......................................................................................................11

I. Cumplimiento de la legalidad..........................................................................11
II. Aspectos contables .........................................................................................12
III. Análisis financiero ...........................................................................................13
IV. Otros aspectos de gestión y recomendaciones.................................................15

ANEXOS...................................................................................................................17
A.1 Análisis de la contratación................................................................................17
A.2 Cuentas anuales y plantilla ...............................................................................18

Vitoria-Gasteiz, 2000ko azaroaren 10a

Vitoria-Gasteiz, 10 de noviembre de 2000

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

## SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, bera araupetzen duen 1/88 Legean finkatutakoari jarraiki, Sasieta Mankomunitateak 1998ko ekitaldian izan duen ekonomia-finantza jarduerari buruzko txosten hau mamitu du, 1999ko apiriletik 2000ko martxora bitarteko Urteko Lan Programaren barne.

Mankomunitatearen jardueraren diagnosi-analisia egitea izan da lana, eta proba laburtuak aplikatu dira azterketa horretan, bai eremuari zein hedadurari dagokienez. Hona hemen aztertu ditugun alorrak:

- antolaketa orokorra
- aurrekontuaren eta kontularitzaren kontrola
- sarreren kudeaketa eta diru-bilketa
- langileen kudeaketa
- zerbitzuak eta hornidurak kontratatzea.

Aplikatzekoa den lege-araudia bete den aztertzen da txostenaren I. partean, eta kontularitzako akatsak II.ean. Hurrengo, III.ak Mankomunitatearen finantzen analisia azaltzen du, eta IV.ak, azkenik, Mankomunitateak hobetu beharko lituzkeen kudeaketako beste alde batzuk garatzen ditu.

Mankomunitatea 1990ean eratu zen, eta ondorengo taulan jasotzen dira Mankomunitatea osatzen duten 22 udalak; 65.624 bizilaguni ematen die zerbitzua.

SASIETAKO MANKOMUNITATEA: KIDE DIREN UDALAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| Altzaga | Gabiria | Mutiloa | Zaldibia |
| Arama | Idiazabal | Olaberria | Zegama |
| Ataun | Itsasondo | Ordizia | Zerain |
| Beasain | Lazkao | Ormaiztegi | Zumarraga |
| Ezkio-Itsaso | Legazpi | Segura | |
| Gaintza | Legorreta | Urretxu | |

Hondakin solidoak biltzeko zerbitzua betetzen du Mankomunitateak, eta Beasaingo Sasietan kokatutako zabortegia kudeatzen du, hortik baitatorkio izena ere. Mankomunitateko udalen ekarpenez gain, zabortegian hondakinak uztearren ordaindutako prezio publikoarekin finantzatzen da, Mankomunitatekoak ez diren erabiltzaileei ezartzen zaie-eta prezio publikoa. Inbertsiorik nagusienak Gipuzkoako Foru Aldundiaren kapitaleko diru-laguntzekin finantzatu dira.

# ONDORIOAK

## I. LEGEZKOTASUNA BETETZEA

Sarreran azaldutako mugekin gauzatu dugun azterketan, honako alde nagusi hauek aurkitu ditugu:

### Aurrekontu eta kontularitzako araudia

- 1997, 1998 eta 1999. urteetan atzerapenak egon ziren kontularitza-prozesuetan, eta, ondorioz, atzerapen nabaria sortu zuten urteko kontuak egin eta onartzeko; izan ere, 2000ko maiatzean oraindik kitatu gabe zeuden aipatutako hiru aurrekontuak, araudiak eskatutako epeak bete gabe utziz (Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 4/91 Foru Arauko 49.1. eta 63. artikuluak).

### Ondasun-zerrenda

- Mankomunitateak ez du egin ez eta onartu ere aginduta dagoen Ondasunen Inbentarioa (Toki Erakundeen Ondasunen Araudiari buruzko 1372/86 EDko 17. artikulutik 35.era artekoak).

### Funtzio publikoa.

- Hiru kontratatuk betetzen dituzte zerbitzuak Mankomunitatean aldi baterako lan-kontratuz, harik eta lanpostu horiek behin betiko bete arte. 1996an eta 1998an hautatu ziren kontratatuok INEMek (birritan) eta Ingeniari Teknikoen Elkargoak proposatutako izangai-taldeari berariazko probak egin ondoren; baina horrela ez da bete Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeko 25 eta 33. artikuluetan esandakoa, enplegu publikora iristeko, berdintasun-printzipioa bermatuko duten deialdi publikoak egin behar direla.
- Mankomunitateak 1998an Efalebae aplikatzea erabaki zuen, 1997ko urtearekiko %3,02ko lansari-igoerarekin. Akordio horrek hautsi egiten du Estatuko 1998ko Aurrekontu Orokorren Legea, urte horretako lansarien igoera %2,1ean mugatu zuelako, 65/97 Legeko 18.2. artikuluak hala aginduta.

### Administrazio-kontratazioa

Mankomunitateak esleitutako 11 kontratu aztertu ditugu, 342 milioi pezetakoak guztira, eta akats hauek atzeman ditugu. Hauek dira ikusitako ez-betetzeak (A.1 eranskina ikusi):

- Guztira 26 milioi pezetara iritsi ziren lau esleipen aurrez hautaketa-prozesurik egin gabe esleitu ziren, publizitate eta lehiaren printzipio orokorrak bete gabe (Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko 13/1995 Legeko 11.1 eta 76.1. artikuluak). Kontratazio horiek, bestalde, araudiak eskatutako beste zenbait alderdi bete gabe egin ziren, hala nola, kontratatutako prestazioak zehazteko aurrekonturik edo ezaugarri teknikoen orririk egin gabe, administrazioko baldintzen orriak idatzi gabe, eta esleipendunek bere

betebehar fiskalak eta sozialak egunean zituzten egiaztatu gabe (APKLko 11.2. eta 20.f. artikuluak).

- Aztertutako 11 esleipen horietako bat bera ere ez zuen aurrez fiskalizatu Mankomunitatearen kontu-hartzailetzak (APKLko 11.2.g. artikulua).

## II. KONTULARITZAKO ALDERDIAK

Sarrerako atalean azaldutako hedadurarekin gauzatu dugu gure azterketa, eta ez dugu salbuespen nabaririk aurkitu.

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

## III. FINANTZEN ANALISIA

Mankomunitatearen finantza-zenbateko nagusiak hurrengo taulan adierazten dira, onartzeke dauden kitapenetatik aterata:

FINANTZEN ANALISIA — Milioika pezetatan

| | 95 | 96 | 97 | 98 | 99 |
|---|---|---|---|---|---|
| Prezio publikoak (3. kap.) | 19 | 27 | 78 | 102 | 163 |
| Udalen ekarpenak (4.kap.) | 224 | 248 | 232 | 251 | 246 |
| Beste batzuk (5. kap.) | 3 | 4 | 4 | 4 | 3 |
| **A. Diru-sarrera arruntak** | **246** | **279** | **314** | **357** | **412** |
| Pertsonaleko gastuak (1. kap.) | 18 | 21 | 24 | 29 | 33 |
| Ondasunak eta zerbitzuak erostea (2. kap.) | 214 | 252 | 253 | 274 | 310 |
| **B. Funtzionamendu-gastuak** | **232** | **273** | **277** | **303** | **343** |
| **Aurrezki gordina (A - B) = etekin arrunta** | **14** | **6** | **37** | **54** | **69** |
| **Jasotako kapital-dirulaguntzak** | **0** | **3** | **141** | **65** | **0** |
| **Inbertsioak (6. kap.)** | **1** | **3** | **144** | **70** | **11** |
| **Diruzaintzako gerakina abenduaren 31n** | **16** | **17** | **53** | **100** | **158** |
| **Zorpetzea abenduaren 31n** | **0** | **0** | **0** | **0** | **0** |

### Eragiketa arruntak

Kanpoko beste batzuengandik jasotako diru-sarrerak (3. kap.) zortzi aldiz gehiago dira aztertu ditugun bost urteetan, batez ere Deba Goienako udalak, Mankomunitatean sartuta egon gabe, Mankomunitatearen zabortegia erabiltzen hasi direlako. Horri esker gehitu egin dira emandako zerbitzuak, udalaren ekarpenak ia bat ere ugaritu gabe (4. kap.).

Zaborrak berezita batzeko zerbitzu berriak ezartzearekin sortu da batez ere gasturik handiena; izan ere, kostuaren osagairik nagusiena, hau da, hondakinak batzeko kontratu orokorra (183 milioi 1998an), gutxi hazi delako.

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERAGIKETA ARRUNTEN BILAKAERA | Milioika pezetatan




## Inbertsioak

Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatu ditu oso-osorik 1995-1999 aldiko inbertsiorik nagusienak, kapitaleko dirulaguntzekin. Hauek izan dira, ordea, inbertsioak: zaborrak trinkotzeko makina bat, ontzi arinak sailkatzeko instalazioa, eta zabortegira iristeko bide berria egitea.

## Diruzaintzako gerakina

Diru-sarrerak, lehen esandako moduan, prezio publikoei esker hazi dira 1997tik aurrera, gastuak baino askoz gehiago hazi ere, eta horrek diruzaintzako gerakin oso handiak ekarri ditu, 1999ko ekitaldia ixterakoan 158 milioi pezetakoa izateraino.

# IV. KUDEAKETARI BURUZKO BESTE HAINBAT ALDERDI ETA GOMENDIO

## AURREKONTUAK ETA KONTADURITZA.

### Hitzartutako gastuaren gaineko kontrola: D aldia

Mankomunitateak ez du hitzartutako gastuaren aldia jaso (D aldia), fakturak eta ordainketak baino ez ditu jaso kontularitzan. Mankomunitatearen kontraturik garrantzitsuenak hainbat urtetarako esleitzen dira; beraz, anitz urtetarako hitzartzen diren konpromisoak dira.

**Esleitutako kontratuak kontularitzan jaso behar dira, eta anitz urtetarako kontratuen kasuan, konpromiso-kredituen bidez jaso behar dira; nolanahi ere, urteko aurrekontuan onartu behar dira, edo, bestela, aurrekontuari aldaketak eginez.**

**Erosketen zenbatekoa itxurazkoa denean (konponketak, hornidurak, eta abar), eskabidea egiten den unetik kontrolatu behar dira, eta formularioak egin behar dira, kontu-hartzailearen adostasuna eta lehendakariaren baimena bertan jasota ageri daitezen.**

### Beste alderdi batzuk

- Mankomunitateak urteko aurrekontuan txosten bat sartu beharko luke ekitaldian egingo diren ekintzak zehatz azaltzeko, eta ekintza horiekin lortu nahi diren helburuak aipatzeko, lehendakariak eta Zuzendaritza batzordeak ere hobeto egingo dutelako gero kudeaketaren jarraipena.
- Aurrekontuan sartu behar da, halaber, langileei buruz aginduzkoa den eranskina ere, gastuen 1. kapituluko aurreikuspenak lanpostuz lanpostu zehaztuta utziz.

## DIRU-SARRERAK

### Udalen ekarpenak

Udal bakoitzaren ekarpena zehazteko, Mankomunitateak 1995ean udalerri bakoitzean zaborrak batzeagatiko kostuen analisi erabat osoa egin zuen. Ordutik aurrera, analisi hartan lortutako ehunekoak aplikatuz banatzen da udalerrien artean urte bakoitzeko aurrekontuan aurreikusitako defizita.

**Hala ere, 1995ean egindako analisia eguneratzea komeni da. Gainera, udal bakoitzari bere ekarpena jakinarazterakoan, ondo legoke kalkuluan erabilitako aldagai nagusiak gogoraraztea, beren ekarpenak Mankomunitateak emandako zerbitzuekin lotu ahal izan ditzaten.**

Azken urteetako ekitaldietako diru-sarrerak soberakin handiak utzi dituzte diruzaintzan, finantzen azterketan azaldu dugun moduan.

Funts horiei gerora emango zaien erabilera Mankomunitateko udalek erabaki beharko lukete.

## BESTE ALDERDI BATZUK

- Lehendakariaren ebazpenak kasuan kasuko espedientean jasotzen dira, eta ez dago dekretuak jasotzeko libururik, aginduta egon arren.
- Jasotako fakturak ez dira sarreren erregistro-liburuan idazten. Erregistro-liburu hori unibertsaltasunaren printzipioaren menpe dagoenez, idaztoharrak jaso behar dira bertan, nahiz eta era horretako agirietarako beste erregistro bat izatea komeni den, erregistro nagusitik bereizteko.

## INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/TVCP, conforme a lo establecido en la Ley 1/88, reguladora del mismo, ha realizado este informe sobre la actividad económica-financiera de la Mancomunidad de Sasieta en el ejercicio 1998, incluido en el Programa Anual de Trabajo abril 1999-marzo 2000.

El trabajo realizado ha consistido en un análisis diagnóstico de la actividad de la Mancomunidad, tipo de revisión en la que aplicamos pruebas abreviadas tanto en su extensión como en sus alcances. Las áreas analizadas han sido las siguientes:

- organización general
- control presupuestario y contable
- gestión de ingresos y recaudación
- gestión de personal
- contratación de servicios y de suministros

El cumplimiento de la normativa legal aplicable se analiza en el epígrafe I, y en el II las deficiencias de tipo contable. A continuación, el epígrafe III presenta un análisis financiero de la Mancomunidad, y el IV desarrolla otros aspectos de la gestión de la misma que deberían ser mejorados.

La Mancomunidad se constituyó en 1990 y la integran los 22 ayuntamientos que se relacionan en el siguiente cuadro, dando servicio a un total de 65.624 habitantes:

MANCOMUNIDAD SASIETA: AYUNTAMIENTOS MIEMBROS

| | | | |
|---|---|---|---|
| Altzaga | Gabiria | Mutiloa | Zaldibia |
| Arama | Idiazabal | Olaberria | Zegama |
| Ataun | Itsasondo | Ordizia | Zerain |
| Beasain | Lazkao | Ormaiztegi | Zumarraga |
| Ezkio-Itsaso | Legazpi | Segura | |
| Gaintza | Legorreta | Urretxu | |

La Mancomunidad presta el servicio de recogida de residuos sólidos y gestiona el vertedero situado en Beasain que da nombre a la entidad. Se financia con aportaciones de los ayuntamientos miembros, y con el precio público por el depósito de residuos en el vertedero, que repercute a los usuarios no mancomunados. Las inversiones más importantes han sido financiadas por subvenciones de capital de la Diputación Foral.

# CONCLUSIONES

## I. CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

En nuestra revisión, realizada con el alcance descrito en la introducción, se han detectado los siguientes aspectos significativos:

### Normativa presupuestaria y contable

- Durante 1997, 1998 y 1999 se produjeron retrasos en los procesos contables, lo que ha motivado un importante retraso en la confección y aprobación de las cuentas anuales, estando los tres presupuestos mencionados pendientes de liquidar en mayo de 2000, incumpliendo los plazos exigidos por la normativa (art. 49.1 y 63 de la Norma Foral 4/91 Presupuestaria de las Entidades Locales-NFPEL).

### Inventario

- La Mancomunidad no ha confeccionado ni aprobado el preceptivo Inventario de Bienes (arts. 17 a 35 del RD1372/86 Reglamento de Bienes de las Entidades Locales).

### Función pública

- En la Mancomunidad prestan servicios tres contratados temporales, con contratos hasta la cobertura definitiva de la plaza que ocupan. Su selección se hizo en 1996 y 1998 a través de pruebas específicas realizadas al colectivo de aspirantes propuestos por el Inem (en dos casos) y el Colegio de Ingenieros Técnicos, incumpliendo los artículos 25 y 33 de la Ley 6/89 de la Función Pública Vasca-LFPV que exigen la realización de convocatorias públicas que garanticen el principio de igualdad en el acceso al empleo público.
- La Mancomunidad aprobó la aplicación para 1998 del Arcepafe, con un incremento respecto de 1997 del 3,02%. Esto incumple la Ley de Presupuestos Generales del Estado para 1998, que establece para el incremento anual un límite del 2,1% (art. 18.2 de la Ley 65/97).

### Contratación administrativa

Hemos revisado la adjudicación por la Mancomunidad de 11 contratos, por importe de 342 millones de ptas, detectando los siguientes incumplimientos (ver anexo A.1):

- Cuatro de las adjudicaciones, por un importe total de 26 millones de ptas, se realizaron sin un proceso previo de selección, incumpliendo los principios generales de publicidad y concurrencia (arts. 11.1 y 76.1 de la Ley 13/95 de Contratos de las Administraciones Públicas-LCAP). Además, estas mismas contrataciones se hicieron sin cumplir otros aspectos que exige la normativa, como la confección de un presupuesto o pliego técnico para definir las prestaciones que se contratan, y la redacción de un pliego de

condiciones administrativas, y no se comprobó que los adjudicatarios estaban al corriente en sus obligaciones fiscales y sociales (arts. 11.2 y 20.f de la LCAP)

- Ninguna de las 11 adjudicaciones analizadas fue objeto de fiscalización previa por la intervención de la Mancomunidad (art. 11.2.g de la LCAP).

## II. ASPECTOS CONTABLES

En nuestra revisión, realizada con el alcance descrito en la introducción, no hemos detectado salvedades significativas.

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

## III. ANÁLISIS FINANCIERO

Las principales magnitudes financieras de la Mancomunidad, obtenidas de las Liquidaciones pendientes de aprobación, se presentan en el siguiente cuadro:

ANÁLISIS FINANCIERO En millones-ptas

| | 95 | 96 | 97 | 98 | 99 |
|---|---|---|---|---|---|
| Precios públicos (cap. 3) | 19 | 27 | 78 | 102 | 163 |
| Aportaciones de los ayuntamientos (cap. 4) | 224 | 248 | 232 | 251 | 246 |
| Otros (cap. 5) | 3 | 4 | 4 | 4 | 3 |
| **A. Ingresos corrientes** | **246** | **279** | **314** | **357** | **412** |
| Gastos de personal (cap 1) | 18 | 21 | 24 | 29 | 33 |
| Compras de bienes y servicios (cap. 2) | 214 | 252 | 253 | 274 | 310 |
| **B. Gastos de funcionamiento** | **232** | **273** | **277** | **303** | **343** |
| **Ahorro bruto (A-B) = rtdo. corriente** | **14** | **6** | **37** | **54** | **69** |
| **Subvenciones de capital recibidas** | **0** | **3** | **141** | **65** | **0** |
| **Inversiones (cap. 6)** | **1** | **3** | **144** | **70** | **11** |
| **Remanente de Tesorería al 31-12** | **16** | **17** | **53** | **100** | **158** |
| **Endeudamiento al 31-12** | **0** | **0** | **0** | **0** | **0** |

### Operaciones corrientes

Los ingresos provenientes de terceros (cap. 3) se multiplican por ocho en los cinco años analizados debido, fundamentalmente, a que los ayuntamientos de la comarca del Alto Deba, que no están mancomunados, comienzan a usar el vertedero de la Mancomunidad. Esto ha permitido ampliar los servicios prestados sin aumentar apenas las aportaciones municipales (cap. 4).

El mayor gasto se origina, sobre todo, por la implantación de los nuevos servicios de recogida selectiva de basura, ya que el principal componente de coste, el contrato general de recogida de residuos (183 millones en 1998), experimenta incrementos moderados.

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EVOLUCIÓN DE LAS OPERACIONES CORRIENTES En millones-ptas




## Inversiones

Las inversiones más importantes del período 1995-99 han sido financiadas en su integridad por la Diputación Foral de Gipuzkoa, mediante subvenciones de capital, y han consistido en una máquina compactadora de basuras, la planta de clasificación de envases ligeros, y la construcción de un nuevo acceso al vertedero.

## Remanente de Tesorería

A partir de 1997 se producen los incrementos ya señalados en los ingresos por precios públicos, muy superiores a los incrementos de los gastos, lo que ha provocado el elevado Remanente de Tesorería de 158 millones de ptas al cierre del ejercicio 1999.

# IV. OTROS ASPECTOS DE GESTIÓN Y RECOMENDACIONES

## Presupuestos y contabilidad

### Control del gasto comprometido: fase D

La Mancomunidad no registra la fase de compromiso del gasto (fase D), limitándose a contabilizar las facturas y los pagos. Los contratos más importantes de la Mancomunidad se adjudican para varios años y, por lo tanto, son compromisos de carácter plurianual.

**Registrar contablemente los contratos adjudicados y, en el caso de los contratos plurianuales, registrarlos por medio de créditos de compromiso, que deben ser aprobados en el Presupuesto anual o a través de modificaciones del mismo.**

**Las compras de cierto importe (reparaciones, suministros, etc.) deben controlarse también desde la realización del pedido, estableciendo formularios en los que conste la conformidad del interventor y la autorización del Presidente.**

### Otros aspectos

- La Mancomunidad debería incluir en el Presupuesto anual una Memoria descriptiva de las acciones a realizar en el ejercicio, y de los objetivos a alcanzar a través de las mismas, lo que permitiría un mejor seguimiento posterior de la gestión por el Presidente y la Junta Rectora.
- El Presupuesto debe incluir el preceptivo anexo de personal, desglosando por puesto de trabajo las previsiones del capítulo 1 de gastos.

## INGRESOS

### Aportaciones municipales

Para la determinación de la aportación de cada ayuntamiento, la Mancomunidad realizó en 1995 un completo análisis del coste de recogida en cada municipio. A partir de esa fecha, el déficit previsto en el presupuesto de cada año se reparte entre los ayuntamientos aplicando el porcentaje obtenido en aquel análisis.

**Parece conveniente actualizar el análisis realizado en 1995. Además, al notificar a los ayuntamientos su aportación convendría recordar las principales variables usadas en el cálculo, de modo que puedan identificar su aportación con los servicios prestados por la Mancomunidad.**

Los ingresos de los últimos ejercicios han provocado la existencia de un elevado Remanente de Tesorería, como se ha comentado en el análisis financiero.

El destino futuro de estos fondos debería ser decidido por los ayuntamientos miembros de la Mancomunidad.

## OTROS ASPECTOS

- Las resoluciones del Presidente se incorporan al correspondiente expediente, sin que se mantenga el preceptivo libro registro de decretos.
- Las facturas recibidas no se registran en el libro registro de entradas. El principio de universalidad de dicho registro exige su anotación, aunque puede ser conveniente mantener un registro diferenciado del general para este tipo de documentos.

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

# ANEXOS

## A.1 ANÁLISIS DE LA CONTRATACIÓN

| NORMATIVA APLICABLE A LA CONTRATACIÓN LOCAL | |
|---|---|
| Ley 7/85 | Reguladora de las Bases de Régimen Local /LRBRL |
| RD Leg. 781/86 | Disposiciones Legales Vigentes en Materia de Régimen Local |
| Ley 13/95 | Contratos de las Administraciones Públicas/LCAP |
| Decr. 3410/75 | Reglamento General de Contratación del Estado (y disp. modif.) |
| Decr. 1005/74 | Contratos de Asistencia con Empresas Consultoras o de Servicios |
| R. Decr. 2757/85 | Contratación de Trabajos Específicos y Concretos No Habituales |

La LCAP exime de los requisitos de publicidad y concurrencia a los denominados contratos menores, que son las obras de coste inferior a 5 millones de ptas, y los suministros y asistencias técnicas de menos de 2 millones de ptas (arts. 57, 121, 177 y 202).

Durante 1998 un total de 11 entidades facturaron a la Mancomunidad más de 2 millones de pesetas, suponiendo un gasto total de 306 millones-pesetas. Hemos seleccionado para esta revisión los contratistas más importantes:

ANÁLISIS DE CONTRATACIÓN | Millones-ptas.

| | Importes | | Adjudicación | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Objeto | Adjudic. | Oblig.98 | Sistema | Fecha | Deficiencia |
| **Compras de bienes y servicios (cap. 2)** | | | | | |
| - Recogida y transporte de basura en general | 154 | 183 | Concurso | 10.92 | C |
| - Recogida y transporte de envases y plástico | 9 | 5 | Concurso | 6.97 | C |
| - Recogida y transporte de papel y cartón | 8 | 8 | Concurso | 1.95 | C |
| - Recogida de cartón puerta a puerta (hasta 15.11.98) | 4 | 4 | Concurso | 6.97 | C |
| - Recogida de cartón puerta a puerta (desde 15.11.98) | 2 | 2 | Sin concurrencia | 12.98 | A B C |
| - Vertedero: transporte de residuos líquidos a depuradora | (*) 8 | 8 | Concurso | 6.97 | C |
| - Vertedero: capa vegetal con tierra transportada | 8 | 8 | Sin concurrencia | 5.98 | A B C |
| - Planta clasificadora de envases: explotación | 8 | 7 | Sin concurrencia | 4.98 | A B C |
| **Inversiones (cap. 6)** | | | | | |
| - Nuevo acceso a vertedero | 105 | 54 | Concurso | 7.97 | C |
| - " " " : dirección de obra | 8 | 7 | Sin concurrencia | 7.97 | A B C |
| - Planta clasificadora envases: máquinas y habilitación de local | 28 | 4 | Concurso | 3.97 | C |
| TOTAL | 342 | 290 | | | |

(*) Adjudicación por precios unitarios

Deficiencias A: adjudicación sin concurrencia (art. 11.1 LCAP)

B: tramitación sin pliego admin., ni presupuesto/pliego técnico, ni certif. Hacienda (arts. 11.2, 20.f LCAP)

C: adjudicaciones sin fiscalizar (art. 11.2.g LCAP )

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

## A.2. CUENTAS ANUALES Y PLANTILLA

A. LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 1998 Millones de ptas.

| INGRESOS | Presupuesto Inicial | Modif. | Defin. | Dchos Obligs. | Cobros/ Pagos | Pdtes. | % Ejec. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3.- Tasas y precios públicos.............. | 74 | - | 74 | 102 | 81 | 21 | 138% |
| 4.- Transf. y subv. corrientes............ | 249 | - | 249 | 251 | 214 | 37 | 101% |
| 5.- Ingresos patrimoniales................ | 1 | - | 1 | 4 | 4 | - | |
| 7.- Transf. y subv. de capital ............ | 70 | - | 70 | 65 | 49 | 16 | |
| **TOTAL INGRESOS ..........................** | **394** | - | **394** | **422** | **348** | **74** | **107%** |
| GASTOS | | | | | | | |
| 1.- Gastos de personal...................... | 32 | - | 32 | 29 | 28 | 1 | 91% |
| 2.- Compra de bienes y servicios....... | 289 | - | 289 | 274 | 217 | 57 | 95% |
| 6.- Inversiones................................. | 73 | - | 73 | 70 | 59 | 11 | 96% |
| **TOTAL GASTOS** | **394** | - | **394** | **373** | **304** | **69** | **95%** |
| **INGRESOS – GASTOS** | **0** | - | **0** | **49** | **44** | **5** | |

B. VARIACIÓN DE LOS PRESUPUESTOS CERRADOS Millones de ptas.

| | Pdte. inicial | Anulac. | Cobros/ Pagos | Pdte. final |
|---|---|---|---|---|
| Deudores de ej. cerrados ................. | 94 | 2 | 87 | 5 |
| Acreedores de ej. cerrados.............. | 111 | - | 107 | 4 |
| **INGRESOS – GASTOS** | **(17)** | **2** | **(20)** | **1** |

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

| C. RESULTADO PRESUPUESTARIO del ejercicio 1998 | Millones de ptas. |
|---|---|
| Derechos liquidados | 422 |
| - Obligaciones reconocidas | (373) |
| Anulac. saldos a pagar en Cerrados | - |
| - Anulaciones de saldos a cobrar en Cerrados | (2) |
| **RESULTADO PRESUPUESTARIO** | **47** |
| Rtdo. por gastos financiados con Rem. Tesorería | - |
| Rtdo. por desviaciones de financiación | - |
| Resultado presupuestario ajustado | 47 |

| D. REMANENTE DE TESORERÍA al cierre de 1998 | Millones de ptas. |
|---|---|
| Remanente de tesorería a 1.1.98 | 53 |
| Resultado presupuestario 1998 | 47 |
| **REMANENTE TESORERÍA A 31.12.98** | **100** |
| Tesorería. | 96 |
| Deudores presupuestarios | 79 |
| Deudores extrapresupuestarios | 7 |
| Acreedores presupuestarios | (73) |
| Acreedores extrapresupuestarios | (9) |
| **REMANENTE TESORERIA A 31.12.98** | **100** |
| RT por desviac. de financiación | - |
| RT para gastos generales | 100 |

E. PERSONAL — Nº personas (*)

| Puesto de trabajo | Grupo | Laborales fijos | Interinos (cob. vac.) | Temp. |
|---|---|---|---|---|
| Jefe de servicio | B | 1 | | |
| Técnico de medio ambiente | B | | 1 | |
| Administrativo | C | | | (**) 1 |
| Empleados del vertedero | E | 2 | 1 | |
| **TOTAL** | | **3** | **2** | **1** |

(*) Número de personas que han percibido retribuciones durante 1998.

(**) En enero de 1999 se transforma en un contrato de cobertura de vacante.